



GOBERNU BILERA

**Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak**

CONSEJO DE GOBIERNO

**Dossier de Prensa
Acuerdos destacados**

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailak 21

Vitoria-Gasteiz, 21 de febrero de 2023

Segurtasuna

**SUTEEN ITZALKETAKO ZERBITZUEN LEPEK ERE PLAZEN % 25ETIK
% 40RA BITARTEAN GORDE BEHARKO DITUZTE EMAKUMEENTZAT
PLANTILLETAKO EMAKUMEEN EGUNGO PRESENTZIA ESKASA
ZUZENTZEKO**

- Suteen prebentzio eta itzalketako eta Salbamenduko zerbitzuen egitekoak, egitura eta langileak arautuko dituen lehenengo lege propioan jasotako neurrietako bat da
- Titularrak hiru hiriburuak eta hiru foru-aldundiak dituzten 26 suhiltzaile-etxe daude
- Arau berriak eredu koherente eta kohesionatua ezartzen du Euskadi osorako, aldi berean erakunde-maila bakoitzaren autonomia osoa, erabakiak hartzeko ahalmena eta berezitasun historikoa kontuan hartuta
- Suteen itzalketako zerbitzu bakoitzak bere lurralde-esparruan beteko ditu dagozkion eginkizunak, baina premia bizia izanez gero, lurraldetik kanpora ere jardun ahal izango dute
- Suhiltzaileak agintaritzako agentetzat hartuko dira

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Euskadiko “*Suteen prebentzio eta itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzuen Lege Proiektua*”. Arau horrek larrialdiei aurre egiteko eta babes zibilerako euskal sistemako oinarriko zerbitzuetako bat arautuko du. Lehenbiziko aldiz, plantilletako emakumeen presentzia eskasa zuzentzeko neurriak, arauketa espezifikoak, jasoko du, Euskadiko Poliziaren Legean Ertzaintzarako eta Euskadiko udaltzaingoetarako ezarritakoa bezalakoa.

Euskadiko suhiltzaile-zerbitzuen egungo mapa heterogeneoa da: titularrak 6 erakunde ezberdin (3 hiriburuak eta 3 foru-aldundiak) dituzten 26 suhiltzaile-etxe daude. Arau berriak eredu koherentea eta kohesionatua ezartzen du suteen itzalketako zerbitzu guztientzat, bai eta zerbitzuko pertsonalari aplikatu ahal izango zaion araubide erkide bat ere, baina, aldi berean, uneoro, erakunde-maila bakoitzaren autonomia eta erabakitze ahalmena, zerbitzu bakoitzaren berezitasunak eta ezaugarri identifikatzaile eta historikoak errespetatuz. Berez, araua erakundeen arteko lanaren emaitza da, eta legea prestatzean horien helburua izan da Euskadiko suteen itzalketako zerbitzu guztien jarduketa hobeto koordinatzea, eraginkortasunez iritsi ahal izateko Euskadiko lurralde osora. Bestalde, arauaren helburua suhiltzaile-zerbitzu horien eta larrialdiei aurre egiteko eta babes zibilerako euskal sistemako gainerako eragileen arteko lankidetzaren hobetzea ere bada: Ertzaintza, udaltzaingoak, Osakidetza, DYA, Gurutze Gorria, etab.

Josu Erkoreka lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuak lege berri hau Eusko Legebiltzarrean aurkezteko agerraldia eskatu du jada. Legeak 31 artikulua ditu 4 kapitulutan banatuta, eta 2 xedapen gehigarri, 4 xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

Berdintasunari bultzada (19, 20, 21 eta 27. artikulua)

Lege berriak urrats ausarta eta erabakigarria ematen du suteen itzalketako zerbitzuetan sartzean, lanpostuak betetzean eta barne-sustapenean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko bidean aurrera egiteko. Gaur egun plantilletan oso emakume suhiltzaile gutxi daude, eta lege honek, beraz, ezartzen du erakundeek sustapen-plan espezifikoak jarri behar dituztela martxan suteen itzalketako zerbitzuetan emakumeen presentzia bermatzeko.

Alde horretatik, kategoria bakoitzean txanda libre bidez sartzeko hautaketa-prozesuetan emakumeek beteko duten plaza-kopuru bat zehaztu beharko da horien presentzia orekatu ahal izateko. Kopuru hori, legea onartzen denetik aurrera, deialdia egiten duten erakundeek zehaztuko dute, eta ezingo da deitutako plaza-kopuruaren % 25etik beherakoa eta % 40tik gorakoa izan. Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legean Ertzaintzarentzat eta Euskadiko udaltzaingontzat ezartzen den tarte bera da.

Koordinazioa eta lankidetzak

Onartzekoa den legeak (9. art.) egungo *Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzuak Koordinatzeko Batzordearen* maila igotzen du. Batzordea kide anitzeko organo aholku-emailea izango da, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak zuzenduko du eta erakunde guztiak eta ordezkariak handiena duen lanbide-elkartea egongo dira bertan ordezkaturik. Batzordearen eginkizunak izango dira lanerako metodoak, protokoloak, ekipoak eta materialak homogeneousatzea, suteetako esku-hartzei buruzko eredu estatistiko bateratu bat estandarizatzea, lankidetzak-akordioak bultzatzea, etab.

Alde horretatik, aipatutako erakunde guztiak ordezkaturik dauden Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Zuzendaritza Kontseiluaren eskumena izango da Euskadiko erakundeen suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuen kategorietan sartzeko hautaketa egitea eta prestakuntza eskaintzea, bai eta prestakuntzako gainerako jardueretan lankidetzak eskaintzea ere.

Beste alderdi aipagarri bat da (11, 12 eta 13. art.) zerbitzu bakoitzak zerbitzuaren titularra den administrazio publikoak eskumenak dituen lurraldean garatuko dituela bere eginkizunak, baina lurralde-eremu horretatik kanpora ere jardun ahal izango du premia larriko egoera batean, beste leku batzuetan sortutako larrialdiaren arabera.

Agintaritzako agenteak

Gaur onartu den arau berriak suteen itzalketako langileen oinarritzako jardueraren printzipioak ere zehazten ditu, bai eta ezbeharren bat gertatzen denerako nahiz ikuskatzeko ahala gauzatzeko dituzten ahalmenak ere. Horrek guztiak segurtasun juridikoa ematen die euren jarduerak guztiei esku hartzen ari direnean (5. art.), hauek izanik jarduerak horietako batzuk: aginduak ematea; eraikinetan sartzeko, beharrezkoa bada indarra erabilita; ibilgailuak mugitzea;

kaleak ixtea, trafikoa geraraztea edo bideratzea Euskal Poliziako agenterik ez badago; jendeari sartzeko mugak jartzea; laginak jasotzea; informazioa eskatzea; agiriak kopiatzea, etab.

Horrela, esate baterako, suhiltzaileak (16. art.) agintaritza-agentetzat hartuko dira zerbitzuan daudenean edo, zerbitzuz kanpo daudenean, ezbeharren batean edo berehalako arrisku-egoeraren batean parte hartzen dutenean, suteen itzalketako eta salbamenduko zerbitzuetako langileak direla egiaztatuta. Hori dela eta, lanbidea egiaztatzen duen agiriak eraman beharko dituzte (17. art.). Horrez gainera, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko suhiltzaile guztiak biltzen dituen erregistro bat sortuko du (18. art.).

Langileak (15. eta 23. artikulua eta Bigarren Xedapen Iragankorra) eskala eta hierarkia-lerro bakarrean sartuko dira, eta lerro horretan honako kategoria hauek izango dira txikienetik handienera: suhiltzailea, dotazioko burua, taldeko burua, ofizialordea, ofiziala eta inspektorea. Lege berri honetan ezarritako estatutu-araubideak arautuko ditu. Suteen itzalketako zerbitzuetan beste teknikari batzuk, administrariak edo beste ofizio batzuetakoak ere egon litezke, beharrezkoa bada, eta aldi baterako langileak ere kontratatu ahal izango dira une jakinetan laguntzeko.

Enpresetako suhiltzaileak

Azkenik, legeak, Euskadiko lege batean lehenbiziko aldiz, enpresetako su-itzalketako zerbitzuak ere arautzen ditu, eta zerbitzu horietako suhiltzaileei Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak, horretarako prestakuntza gainditu ondoren, emango dien egiaztapena eskatuko zaie.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 429.000 EURO BIDERATU DITU DOKTORETZA ONDOKO IKERTZAILEEN ATZERRIKO EGONALDIETARAKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, Doktoretza Ondoko Hobekuntza Programan parte hartzen duten ikertzaileei zuzenduriko laguntzak deitzen dituen agindu bat. Laguntza deialdi honek 429.258 euroko zenbatekoa du orotara eta ikertzaile doktore horiek atzerriko egonaldietako zentroetan dauden bitartean izan ohi dituzten ostatu eta mantenu-gastuak finantzatzea du helburu.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Eusko Jaurlaritzak 2022-2023 ikasturterako deitua duen Doktoretza Ondoko Hobekuntza Programaren onuradunek. Ezinbesteko baldintza izango da ikertzaile horiek jardunean egotea, doktoretza ondoko laguntzen lehen edo bigarren urtean. Ostatu eta mantenu-gastuetarako ematen den laguntza hau Doktoretza ondoko programako gainerako laguntzen osagarri da, eta 27,35 eurokoa izango da zenbatekoa atzerrian emandako egun bakoitzeko. Egonaldia 2023 urtean hasi beharko da.

Joan den 2022an, doktoretza ondoko programako 43 doktorek jaso zituzten atzerriko egonaldiak finantzatzeko laguntza hauek.

Doktoretza Ondoko Hobekuntza Programa

Doktoretza ondoko programaren onuradun diren ikertzaileek lan-kontratu bat sinatzen dute ikerkuntzan diharduen euskal erakunde batekin, gehienez ere lau urterako. Erakunde edo ezarpen-zentro hori unibertsitate, ikerketa-zentro edo osasun-ikerketako institutu bat izan ohi da, I+Gean gaitasuna eta jarduera egiaztatua duena eta egoitza soziala Euskadin duena.

Doktoretza ondoko hobekuntzako 48 hilabete horien barruan, gehien 24 hilabeteko iraupena izango duen lehen fasean, doktorea bere ezarpen-zentrotik atzerriko ikerketa-zentro batera joan ohi da, ikerketa-proiektu bat garatzeko. Bigarren fasean berriz, ikertzailea Euskadiko ikerketa-talde batean txertatuko da. Gaur Gobernu Kontseiluak onartutako laguntza atzerrian burutzen den lehen faseko egonaldi-gastuetarako jasoko du doktoreak.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

65.000 PERTSONAK BAINO GEHIAGOK JASO DITZAKETE SEME-ALABAK HAZTEKO ETA MANTENTZEKO LAGUNTZA BERRIAK

- **Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak 110 milioi euro bideratuko ditu aurten eskaerari erantzuteko**
- **Prestazioak beste neurri batzuekin bateragarriak dira, hala nola kenkari fiskalekin, haurreskolen doakotasunarekin edo kontziliazio-laguntzekin, besteak beste**
- **Eusko Jaurlaritzak hilabeteak daramatza erantzun egoki bat emateko prestatzen: arloko lantaldea indartu da eta herritarrekin harreman zuzena izateko bitartekoak jarri dira**

Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspenen arabera, 65.000 pertsonak baino gehiagok izango dute seme-alabak hazi eta mantentzeko hileko laguntza berriak jasotzeko eskubidea. Zehazki, 55.000 baino gehiago dira hiru urtetik beherako umeak, eta 10.000 inguru hiru eta zazpi urte bitarteko familia ugarietako haurrak. Eskari horri aurre egiteko, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak 110 milioi euro bideratuko ditu 2023an.

Bi zifra horiek ondo azaltzen dute Jaurlaritzak seme-alabak izan nahi dituzten familien alde egin duen apustu sendoa, nahi duten seme-alaba kopurua izan dezaten. Izan ere, Gobernu Kontseiluak argi berdea eman dio gaur prestazio berri horiek arautzen dituen dekretuari.

Neurri horrekin, hiru urtetik beherako EAeko familia guztiek urtean 2.400 euro jasoko dituzte seme edo alaba bakoitzeko. Laguntza horiei kenkari fiskalari gehituko zaizkie: seme edo alaba bategatik, 950 euro inguru urtean; birengatik, 2.100 inguru; edota lehendik bultzatutako beste neurri mota batzuek ere, hala nola Haurreskolen doakotasuna edo Nerea Melgosak zuzendutako sail berak banatzen dituen kontziliaziorako laguntzak.

Urkullu Lehendakariak duela hilabete batzuk iragarri zuen bezala, apustua laguntza-sistema iraunkor eta jasangarri bat bultzatzea da, emantzipaziorako eta familiek nahi dituzten seme-alabak izan ditzaten, baldintzarik ezak behartutako atzerapenik gabe.

Lanak eginda

Laguntza berri hauek martxan jartzeak lan-karga gehigarria suposatzen ari da Nerea Melgosak aurreko astetik zuzentzen duen sailarentzat. Prentsurrekoan azaldu den bezala, Familien eta Haurren Zuzendaritzak hilabeteak daramatza prestatzen prestazio berri honi eta datozen asteetan iritsiko diren eskaeren bolumena kudeatzeko:

- Laguntzak eskatzeko sistema sinplifikatu eta hobetu da, eta espedienteak kudeatzeko prozedura modernizatu da. Laguntza berriak telematikoki edo aurrez aurre eskatu ahal izango dira.

- Familia eta Haurren Zuzendaritzako lantaldea handitu egin da, eta 60 pertsona baino gehiago arituko dira prestazio berri horrekin lotutako kudeaketa guztiak egiten.
- Era berean, hainbat baliabide jarri dira herritarrek zalantzak argitu eta neurri horiei buruzko lehen eskuko informazioa aurkitu ahal izan dezaten:
 - Atzotik, herritarrentzako zuzeneko telefono zenbaki berri bat dago martxan: 945 062 040 zenbakiaren bitartez.
 - Era berean, posta elektronikoko helbide bat gaitu da, umeak@euskadi.eus, kontsultei erantzuteko.
 - Webgunean atal bat dago, euskadi.eus/hilekolaguntzak estekan aurki daitekeena, prestazio berri honekin lotutako galdera arruntenei erantzunez.
 - Halaber, kartelak eta informazio-liburuxkak diseinatu dira, eta datozen asteetan banatuko dira haur txikiak dituzten familiek edo lehen umearen zain daudenek denbora pasa ohi duten lekuetan, hala nola osasun-zentroetan edo haurtzaindegietan.

Eskaerak, martxoaren 1etik

Datorren hileko lehen egunetik hasita (martxoaren 1a, asteazkena), hileroko laguntza berriak eskatu ahal izango dira: telematikoki– horretarako, beharrezkoa izango da identifikazio-baliabide bat izatea, laguntza kanal horren bidez eskatu ahal izateko – edo aurrez aurre, Zuzenean Zerbitzuak EAEko hiru hiriburuetan dituen ordezkarietan, posta-bulegoetan edo Udalen bidez.

Adinaren baldintzak betetzen dituzten euskal familia guztiek jaso ahal izango dute beren kargura duten seme-alaba bakoitzeko laguntza bat hileroko, dela jaiotzagatik, adopzioagatik, adopzio aurreko elkarbizitzarako zaintzaren delegazioagatik edo tutoretzagatik. Horrela, hiru urtetik beherako haurrak dituzten familiek 200 euroko ordainketa eskatu ahal izango dute hileroko; hirugarren eta ondorengo seme-alaben kasuan, 100 euroko laguntza gehigarria egongo da hilean, haurrak zazpi urte bete arte. Baldintza hauek betetzen dituzten familia guztiek kobratu ahal izango dute laguntza berria, nahiz eta 2023a baino lehen jaio izana.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

GOBERNU KONTSEILUAK AUZITEGI MEDIKUNTZAKO EUSKAL INSTITUTUAREN EGOITZA BERRIRAKO BILBON ERAIKIN BAT EROSI AHAL IZATEKO PROZESUA HASTEKO KREDITU BAT ERRESERBATZEA ONARTU DU

- **Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila higiezina 15 milioi euroren truke erosteko negoziazioak amaitzear ditu**
- **Zentro bakar batean bilduko ditu Auzitegi Anatomia Institutua, AMEIn laborategiak eta bulegoak, Balorazio Integraleko Auzitegi Unitatea eta Auzitegi Klinika Medikoa**
- **Eraikin hau erostea Egoitza Judizialen Planean sartzen da, 2022-2028 Justiziako Plan Estrategikoaren laugarren jarduketa ildoan**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak Telefonicarene eraikina erostea (Buenos Aires kalea, 10, Bilbo), 15 milioi euro ingururen truke. Nerea Melgosak zuzentzen duen sailaren asmoa da Auzitegi Medikuntzaren Euskal Institutuaren (AMEI) egoitza gisa euskal ekipamendu judizialean sartzea, berritu ondoren. Horrela, AMEIn zerbitzuak eraikin bakar batean bildu ahal izango lirarteke, hala nola Auzitegi Anatomia Institutua, Balorazio Integraleko Auzitegi Unitatea, Auzitegi Klinika Medikoa, laborategiak eta bulegoak. Horiek guztiak Bilboko eraikin judizialean banatuta daude, eta leku-arazo nabarmenak dituzte.

Gaur egun Rígel enpresarena den eraikinak 5.277 metro karratu ditu, sotoan eta bost solairutan banatuak. Erosketen eta salmentaren kontratua itxi ondoren, gaur egun negoziatzen ari baitira, proiektu bat eta obra-plan bat diseinatu beharko dira; beraz, aurreikuspenen arabera, 2027rako egongo da martxan. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak eta jabetza duenak erosteko eskaintza batetan adostasuna lortu dute, salerosketa irailaren 30a baino lehen bete dadin.

Eraikin hori erostea Egoitza Judizial Iraunkorren 2022-2030 Planean jasotako lan-ildoan barruan sartzen da. Plan hori Beatriz Artolazabal aurreko sailburuak sustatu zuen, 2022-2028 Justizia Planaren ildo estrategikoetako bat baita.

Gaur egun, Bilboko jarduneko ekipamendu judizialak 62.662 metro karratu ditu, lau eraikinetan banatuak:

- Buenos Airesko Justizia Jauregia
- Albiako Justizia Jauregia
- Barroetako Justizia Jauregia
- Bulegoetarako kristalezko eraikina

Lehenengo hirurak 1991ko Euskal Autonomia Erkidegoko Egoitza Judizialen Planaren arabera eraiki ziren. Harrezkero, Bilbon epaitegi berriak ezartzea bulego judizialak birdentsifikatuz eta trinkotuz ebatzi behar izan da. Bide hori agortuta, 2021ean sortutako Merkataritza arloko azken Epaitegia behin-behinekoz ezarri behar izan zen Getxoko Justizia Jauregian. Leku falta horrek, gainera, ezinezko egin zuen 2008an bulego judizial berria ezartzea.

Azpiegiturak birgaitzea eta handitzea

2014tik aurrera, ekipamendu judiziala handitzen hasi zen, Henao kaleko 9. zenbakiko eraikina, 5.008 metro koadrokoa, bertan sartuta. Lehendik dagoen eraikina barrutik eraisteko eta eraikina handitzeko lizentziak lortu ondoren, obrak 2017an hasi ziren eta aurten amaitzea aurreikusten da. Eraikin horretan egingo da Bizkaiko Probintzia Fiskaltzaren egoitza, eta 2024an hasiko dela aurreikusten da.

Ondoren, 2019ko martxoan, genero-indarkeriaren epaitegien zuzkidurak hobetzeko beharra nabarmendu zen, eta, gainera, helduentzako justizia-zerbitzu batzuetako langileak gehitu ziren, hala nola BLZtakoak, Zigorren Kudeaketakoak eta Justizia Lehengoratzaillekoak. Hori dela eta, Bilboko Ibañez kaleko kristalezko eraikinean (3 zenbakia) saltokiak erosteko programa hasi zen. Hala, 2019 eta 2022 artean 16 bulego erosi dira, 1.952 metro koadrokoak.

Mapfre eraikina erosteak, Ibañez de Bilbao kaleko 28. zenbakian, 19.000 metro karratu baino gehiago sortuko ditu 2027an, obrak amaitzen direnean, Lan arloko, Merkataritzako eta Administrazioarekiko Auzien epaitegiak jartzeko, EAEko agintari judizialekin adostu bezala. Laster hasiko dira obrak. Obrak egiteko 32 hilabeteko epea aurreikusi da.

Mapfre eraikina erosi ondoren, 2022ko lehen seihilekoan hainbat bilera egin ziren agintari judizialekin, Bilboko justizia-sistemako eraikinen erabilerak zehazteko. Elkarrizketa horietan mahai gainean jarri zen Buenos Aireseko Justizia Jauregia birmoldatu beharra, jurisdikzio penaleko epaitegien dotazioak eta funtzionamendua optimizatuz.

Telefónicaren eraikina erosita, birmoldaketa hori egin ahal izango da, Buenos Aireseko zerbitzu batzuk aldi baterako hartzen baititu, eta, ondoren, behin betiko, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Institutuaren egoitza izan dadin.

Kultura eta Hizkuntza Politika

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAK 825.000 EURO
BIDERATUKO DITU ARTE ESZENIKOAK SUSTATZEKO PROGRAMETARA**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du 2023ko ekitaldian arte eszenikoak (antzerkia, dantza eta zirkua) sustatzeko prestakuntza, sustapen edo erakusketa programa eta jardueretarako deialdia. Guztira 825.000 euro banatuko dira dirulaguntza hauetan.

Honako hauek dira diruz lagundu daitezkeen modalitateak:

- **Arte eszenikoetako profesionalen etengabeko prestakuntzara 160.000 euro** bideratuko dira eta honako jarduera hauek lagunduko dira:
 - Etengabeko prestakuntza ikastaroak eta tailerrak
 - Berariazko prestakuntza ikastaroak edo tailerrak
 - Profesionalen etengabeko ikerketara eta prestakuntzara bideratutako laborategiak eta antzeko espazioak
 - Profesionalentzat entrenamendu jarraituko espazioak
- **Arte eszenikoak sustatzeko egitasmoak 160.000 euroekin** lagunduko dira. Arte eszenikoen konpainien eta Euskal Autonomia Erkidegoko udal-titulartasun publikoko espazio eszenikoen arteko lankidetzarekin egindakoak izan beharko dira. Honako hauek lagunduko dira diruz:
 - Sentsibilizazio jarduerak
 - Publikoekiko bitartekaritza-jarduerak
 - Prestakuntza jarduerak
 - Arte eszenikoak sustatzeko programak, konpainia egoiliar batek garatuak
- **Kaleko arte eszenikoak erakusteko programak garatzeko 255.000 euro** erabiliko ditu Kultura eta Hizkuntza Politika sailak. 2023. Urtean euskal konpainiek aire zabaleko espazio publikoetan antzetzutako arte eszenikoak (antzerkia, dantza eta zirkua) erakusketako programak lagunduko dira diruz.
- **SAREAren dantza zirkuitua garatzeko 250.000 euro** bideratuko dira.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agertu eta hurrengo egunetik aurrera.

lazko deialdian Kultura eta Hizkuntza Politika sailak 155 proiektu babestu zituen: 16 arte eszenikoetako profesionalen etengabeko prestakuntzarako proiektuak izan ziren, 11 arte eszenikoak sustatzeko programak, kaleko arte eszenikoak erakusteko 82 programa ere lagundu ziren eta SAREA dantza zirkuituko beste 46 proiektu.

Seguridad

LAS OPE DE EXTINCIÓN DE INCENDIOS DEBERÁN, TAMBIÉN, RESERVAR ENTRE UN 25% Y 40% DE PLAZAS A MUJERES PARA CORREGIR SU ACTUAL INFRARREPRESENTACIÓN EN LAS PLANTILLAS

- **Es una de las medidas de la primera ley propia que regula las funciones, estructura y personal de los servicios vascos de prevención, extinción de incendios y salvamento**
- **Existen 26 parques de titularidad de las tres capitales y las tres diputaciones forales**
- **La nueva norma, establece un modelo coherente y cohesionado para todo Euskadi, respetando la plena autonomía, capacidad de decisión, y singularidad histórica de cada nivel institucional**
- **Cada servicio de extinción de incendios desarrollará sus funciones dentro de su ámbito territorial, pero podrán actuar fuera en caso de urgente necesidad**
- **Las y los bomberos pasarán a ser agentes de la autoridad**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el *“Proyecto de Ley de los Servicios de Prevención, Extinción de Incendios y Salvamento”* de Euskadi, una norma que regula uno de los servicios básicos esenciales del sistema vasco de atención de emergencias y protección civil. Incluye, por primera vez en una regulación específica, medidas correctoras de la actual infrarrepresentación de las mujeres en las plantillas, igual que las ya establecidas para a Ertzaintza y las policías locales de Euskadi en la ley vasca de policía.

El mapa actual de los servicios de bomberos y bomberas en Euskadi es heterogéneo: existen 26 parques de titularidad de 6 instituciones diferentes (3 capitales y 3 diputaciones forales). La nueva norma, establece un modelo coherente y cohesionado para todos los servicios de extinción de incendios, así como un régimen común aplicable a su personal, pero manteniendo y respetando, en todo momento, la plena autonomía y capacidad de decisión de cada nivel institucional, las singularidades de cada servicio, así como sus características identificadoras e incluso históricas. De hecho, esta norma nace fruto del trabajo conjunto entre las diferentes instituciones cuyo objetivo, al preparar esta nueva ley, es conseguir una mayor y mejor actuación coordinada de todos los servicios de extinción de incendios de Euskadi para llegar, de una manera eficaz, al conjunto del territorio vasco. Igualmente, la norma persigue mejorar la cooperación de estos servicios de bomberos y bomberas con el resto de los operadores del sistema vasco de atención de emergencias y protección civil: Ertzaintza, policías locales, Osakidetza, Dya, Cruz Roja, etc.

El Vicelehendakari Primero y Consejero de Seguridad, **Josu Erkoreka**, ha registrado, ya, una solicitud de comparecencia para presentar esta nueva ley en el Parlamento Vasco, un documento que consta de 31 artículos, divididos en 4 capítulos, 2 disposiciones adicionales, 4 transitorias, 1 derogatoria y 2 finales.

Impulso a la igualdad (Art 19, 20, 21 y 27)

La nueva ley da un paso valiente y decidido para avanzar hacia la igualdad de mujeres y hombres en el acceso, provisión de puestos de trabajo y promoción interna en los servicios de extinción de incendios. En la actualidad, las mujeres bomberas están muy infrarrepresentadas en las plantillas por lo que esta ley establece, la obligatoriedad de que las instituciones pongan en marcha planes específicos de promoción para garantizar la presencia de mujeres en los servicios de extinción de incendios.

En este sentido, los procedimientos selectivos de ingreso por turno libre en todas las categorías se deberá determinar el número de plazas que deberán cubrirse por mujeres para equilibrar su presencia. Es un número que se determinará en los planes que, a partir de la aprobación de la ley, determinarán las instituciones convocantes, y que en ningún caso podrá ser inferior al 25% y no superior al 40% de las plazas convocadas. Se trata de la misma horquilla que establece la Ley de Policía del País Vasco para la Ertzaintza y las policías locales de Euskadi.

Coordinación y Cooperación

La futura ley eleva de rango (art 9) la actual “*Comisión Interinstitucional para los Servicios de Prevención y Extinción de Incendios y Salvamento*”, un órgano colegiado consultivo, presidido por el Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco en el que estarán representadas todas las instituciones y la asociación profesional más representativa. Su objetivo es homogeneizar los protocolos, métodos de trabajo, equipos y materiales, estandarizar un modelo estadístico común sobre intervenciones en incendios, impulsar los acuerdos de colaboración etc.

En este sentido, todas las instituciones referidas tienen representación en el Consejo Rector de la Academia Vasca de Policía y Emergencias que tiene atribuida la competencia de selección y formación de ingreso en las categorías de los servicios de prevención, extinción de incendios y salvamentos de las diferentes instituciones vascas, así como colaborar en el resto de las actividades formativas.

Otro aspecto relevante es que (Art.11, 12 y 13) cada servicio desarrollará sus funciones dentro del ámbito territorial de competencia de la administración pública de la que dependan, pero podrán actuar fuera de dicho ámbito en caso de urgente necesidad en virtud de la emergencia surgida en otros lugares.

Agentes de la autoridad

La nueva normativa aprobada hoy, define los principios básicos de actuación del personal de extinción de incendios, así como sus facultades para la intervención ante siniestros o en el ejercicio de sus capacidad inspectora. Todo ello contribuye a dotar de seguridad jurídica todas sus actuaciones cuando están actuando (Art 5): dar órdenes, entrar en inmuebles incluso por al fuerza, mover vehículos, cortar calles, detener o regular el tráfico si no hay agentes de

la Euskal Polizia, restringir el acceso de personas, tomar muestras, pedir información, copiar documentos, etc.

Así, por ejemplo, las bomberas y bomberos pasarán a tener la consideración (Art. 16) de “agente de la autoridad” cuando estén de servicio o cuando, estando libre del mismo, intervengan en cualquier tipo de siniestro o situación de riesgo inminente y acredite su condición de personal de extinción de incendios y salvamento. Por ello, deberán portar documentos de acreditación profesional (Art.17). Además, el Gobierno Vasco creará un registro (Art 18) con todos los bomberos y bomberas de Euskadi.

El personal (Art. 15, 23 y Disposición Transitoria Segunda) se integrará en una única escala y línea jerárquica, dividida en diferentes categorías de menor a mayor: bombero/bombrera, cabo, sargento/sargenta, suboficial/suboficiala, oficial/oficiala e inspector/inspectora. Se regirán por el régimen estatutario fijado en esta nueva ley. Además, en los servicios de extinción de incendios podrá contarse con otro personal técnico, administrativo o de los oficios que se consideren necesarios y se podrá contratar personal temporal para apoyo en momentos concretos.

Bomberos y bomberas de empresa

Finalmente, la ley también regula, por primera vez en una ley vasca, los servicios de extinción de incendios de las empresas a quienes se les exigirá una certificación por parte de la Academia Vasca de Policía y Emergencias que solo se obtiene tras haber superado la formación.

Educación

EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN DESTINA 429.000 EUROS EN AYUDAS PARA ESTANCIAS EN EL EXTRANJERO DEL PERSONAL DEL PROGRAMA POSDOCTORAL

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, una orden de ayudas dirigida al personal investigador que participa en el Programa Posdoctoral de Perfeccionamiento del Departamento de Educación. Esta convocatoria de ayudas, con un importe global de 429.258 euros, busca financiar los gastos de alojamiento y manutención que este personal investigador doctor debe realizar durante su estancia en los centros de destino en el extranjero.

Podrán participar en esta convocatoria las personas beneficiarias del Programa Posdoctoral de Perfeccionamiento de Personal Investigador Doctor que otorga el Gobierno Vasco para el curso 2022-2023. Será condición indispensable que este personal investigador esté en activo y en el primer o segundo año de dichas ayudas posdoctorales. El importe de la ayuda para gastos de alojamiento y manutención, que se concede a modo de ayuda complementaria de otras ayudas que comprende el Programa Posdoctoral, será de 27,35 euros por día de estancia en el extranjero. La estancia deberá iniciarse en el año 2023.

El pasado año 2022, 43 doctores y doctoras del programa posdoctoral fueron beneficiarias de estas ayudas.

Programa Posdoctoral de Perfeccionamiento

Los investigadores e investigadoras beneficiarias del Programa Posdoctoral de Perfeccionamiento suscriben un contrato laboral con una entidad vasca dedicada a la investigación, por un máximo de cuatro años (contrato de al menos tres años de duración, prorrogable hasta un año adicional). Esta entidad o centro de aplicación deberá ser una universidad, centro de investigación o instituto de investigación sanitaria, con capacidad y actividad acreditada en I+D, con sede social en Euskadi.

Dentro de esos 48 meses de perfeccionamiento posdoctoral, y en una primera fase de una duración máxima de 24 meses, el doctor o doctora ha de trasladarse de su centro de aplicación a un centro de investigación en el extranjero (o centro de desplazamiento) con la finalidad de realizar un proyecto de investigación. En una segunda fase posterior, la persona investigadora se integra en un grupo de investigación de Euskadi. El doctor o doctora percibe la ayuda hoy aprobada en Consejo de Gobierno para los gastos de estancia de esa primera fase del perfeccionamiento, que se desarrolla en el extranjero.

Igualdad, Justicia y Políticas Sociales

MÁS DE 65.000 PERSONAS PODRÍAN BENEFICIARSE DE LAS NUEVAS AYUDAS A LA CRIANZA Y EL MANTENIMIENTO DE HIJAS E HIJOS

- **El Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales destinará este año 110 millones de euros a dar respuesta a la demanda**
- **Las prestaciones son compatibles con otras medidas, como las deducciones fiscales, la gratuidad de las haurreskolak o las ayudas de conciliación, entre otras**
- **El Gobierno Vasco lleva meses preparándose para dar respuesta: se ha reforzado el personal del área y se han habilitado medios para facilitar un contacto directo con la ciudadanía**

El Gobierno Vasco estima que son más de 65.000 las personas que tendrán derecho a percibir las nuevas ayudas mensuales a la crianza y el mantenimiento de hijas e hijos. En concreto, son más de 55.000 en el caso de las y los menores de tres años de edad y cerca de 10.000 los niños y niñas de familias numerosas que tienen entre tres y siete años de edad. Para hacer frente a esta demanda, el Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales ha reservado 110 millones de euros en este 2023.

Estas dos cifras explican por sí solas la “fuerte apuesta del Gobierno en favor de las familias que quieren tener descendencia para que tengan el número de hijos e hijas deseado. El Consejo de Gobierno que ha dado hoy luz verde al decreto que regula estas nuevas prestaciones.

Con esta medida, todas las familias vascas con menores de tres años percibirán 2.400 euros al año por hijo o hija. Estas ayudas se sumarán a las deducciones fiscales: por un hijo o hija, en torno a 950 euros anuales; por dos, alrededor de 2.100; y a otro tipo de medidas ya impulsadas, como la gratuidad de las Haurreskolak o las ayudas a la conciliación que reparte el mismo departamento dirigido por Nerea Melgosa, por ejemplo.

La apuesta, como ya anunció el Lehendakari Urkullu hace unos meses, es impulsar un sistema de ayudas sostenido y sostenible que cree un marco de condiciones favorables, tanto para la emancipación como para que las familias tengan los hijos o hijas que desean, cuando lo desean, sin retrasos forzados por la falta de condiciones.

Trabajo intenso

La puesta en marcha de esta nueva ayuda supone una carga adicional de trabajo para el departamento que dirige desde la semana pasada Nerea Melgosa. Tal y como se ha explicado en la rueda de prensa, la dirección de

Familias e Infancia lleva meses preparándose para gestionar esta nueva ayuda y el volumen de solicitudes que llegarán en las próximas semanas:

- Se ha simplificado y mejorado el sistema de solicitud de las ayudas y modernizado el procedimiento de gestión de los expedientes. Las nuevas ayudas podrán solicitarse de forma telemática o de manera presencial.
- Se ha ampliado el equipo de la Dirección de Familias e Infancia con más de 60 personas dedicadas a realizar todas las gestiones relacionadas con esta nueva prestación.
- También se han habilitado diferentes medios para que la ciudadanía pueda aclarar dudas y encontrar información de primera mano en relación a estas medidas:
 - Desde ayer está operativo un nuevo número de teléfono directo para la ciudadanía, el 945 062 040.
 - Se ha habilitado igualmente una dirección de correo electrónico, umeak@euskadi.eus, para atender consultas.
 - Existe un apartado en la web, localizable a través de euskadi.eus/ayudasmensuales, con respuestas a las preguntas más comunes relacionadas con esta nueva prestación.
 - También se han diseñado carteles y folletos informativos, que serán repartidos en las próximas semanas en lugares donde las familias con niños y niñas pequeños o aquellas que esperan a su primer retoño, pasen tiempo habitualmente, como centros de salud o guarderías, por citar dos.

Solicitudes desde el 1 de marzo

Desde el primer día del próximo mes (miércoles 1 de marzo), las nuevas ayudas mensuales podrán solicitarse de forma telemática –para lo que será necesario contar con un medio de identificación que permita solicitar la ayuda a través de este canal– o de manera presencial, a través de las delegaciones de Zuzenean –en las tres capitales vascas–, las oficinas de Correos o los Ayuntamientos.

Todas las familias vascas que cumplan los requisitos de edad podrán cobrar la ayuda mensual por cada hija o hijo que tengan a su cargo, sea por nacimiento, adopción, delegación de guarda para la convivencia preadoptiva o tutela. Así, las familias con niños y niñas menores de tres años podrán solicitar un abono de 200 euros mensuales; en el caso de terceras y posteriores hijas o hijos, habrá una ayuda adicional de 100 euros al mes desde los tres años hasta que la niña o el niño cumpla los siete. También podrán cobrarla todas las familias con menores a cargo, aunque hayan nacido antes de 2023, siempre y cuando cumplan las condiciones.

Igualdad, Justicia y Políticas Sociales

EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA RESERVAR UN CRÉDITO PARA INICIAR EL PROCESO DE POSIBLE COMPRA DE UN INMUEBLE EN BILBAO COMO NUEVA SEDE DEL INSTITUTO VASCO DE MEDICINA LEGAL

- **El Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales negocia la compra del antiguo edificio de Telefónica de la calle Buenos Aires por 15 millones de euros**
- **Albergaría en un solo centro el Instituto Anatómico Forense, los laboratorios y las oficinas del IVML, así como la Unidad Forense de Valoración Integral y la Clínica Médico Forense**
- **La adquisición de este edificio se enmarca en el Plan de Sedes Judiciales, la cuarta línea de actuación del Plan Estratégico de Justicia 2022-2028**

El Consejo de Gobierno ha dado hoy luz verde para reservar un crédito para que el Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales inicie un proceso de posible compra del edificio de Telefónica, sito en la calle Buenos Aires, número 10 de Bilbao, por un importe que rondará los 15 millones de euros. La intención del Departamento dirigido por Nerea Melgosa es incorporarlo una vez reformado al equipamiento judicial vasco como sede del Instituto Vasco de Medicina Legal (IVML).

De esta manera podría hacerse realidad la reunificación en un solo edificio de los diferentes servicios del IVML como el Instituto Anatómico Forense, la Unidad Forense de Valoración Integral, la Clínica Médico Forense, así como los laboratorios y las oficinas; todos ellos dispersos en estos momentos por diferentes edificios judiciales de Bilbao y con evidentes problemas de espacio. El edificio, actualmente propiedad de la empresa Rígel, tiene 5.277 metros cuadrados, divididos en un sótano y cinco plantas. Una vez que se cierre el contrato de compra-venta, ya que actualmente están en negociaciones, será necesario diseñar un proyecto y plan de obras, por lo que las previsiones apuntan a que podría estar operativo para 2027. El Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales y la propietaria han llegado ya a un acuerdo para que la compra-venta se formalice antes del 30 de septiembre.

La adquisición de este edificio se enmarca en las líneas de trabajo recogidas en el Plan de Sedes Judiciales Sostenibles 2022-2030, impulsado por la anterior consejera Beatriz Artolazabal como una de las líneas estratégicas del Plan de Justicia 2022-2028.

Actualmente, el equipamiento judicial en activo de Bilbao cuenta con 62.662 metros cuadrados repartidos en cuatro edificios:

- Palacio de Justicia de Buenos Aires
- Palacio de Justicia de Albia
- Palacio de Justicia de Barroeta
- Edificio de Cristal para oficinas

Los tres primeros se construyeron según el Plan de Sedes Judiciales de la CAE, que data de 1991. Desde entonces, la implantación en Bilbao de nuevos juzgados se ha debido resolver mediante la redensificación y compactación de las oficinas judiciales. Agotada esta vía, el último Juzgado de lo Mercantil, creado en 2021, tuvo que implantarse con carácter provisional en el Palacio de Justicia de Getxo. Esta falta de espacio, además, ya imposibilitó la implantación de la Nueva Oficina Judicial en 2008.

Rehabilitación y ampliación de infraestructuras

Es a partir de 2014 cuando comienza la ampliación del equipamiento judicial con la incorporación al mismo del edificio sito en la calle Henao,9, con 5.008 metros cuadrados. Tras obtener las licencias para la demolición interior de la construcción existente y para la posterior rehabilitación-ampliación, las obras comenzaron en 2017 y está previsto que concluyan a lo largo de este año. Este edificio acogerá la futura sede de la Fiscalía Provincial de Bizkaia y se prevé que comenzará la actividad en 2024.

Posteriormente, en marzo de 2019, se evidenciaron las necesidades de mejora de las dotaciones de los juzgados de Violencia de Género y, además, se amplió el personal de varios servicios de Justicia para adultos, como el SAV, la Gestión de Penas y el Servicios de Justicia Restaurativa. Es por ello que se inició un programa de adquisición de locales en venta en el conocido como Edificio de Cristal de la calle Ibáñez de Bilbao, número3. Así, entre 2019 y 2022 se han adquirido 16 oficinas que suman 1.952 metros cuadrados.

La compra del edificio Mapfre, en el número 28 de la calle Ibáñez de Bilbao, aportará en 2027, cuando finalicen las obras, más de 19.000 metros cuadrados para reubicar los juzgados de lo Social, de los Mercantil y de lo Contencioso-Administrativo, tal y como se acordó con las autoridades judiciales de la CAE. En breve comenzarán las obras, que tienen un plazo estimado de ejecución de 32 meses.

Tras la compra del edificio Mapfre, durante el primer semestre de 2022 se mantuvieron diversas reuniones con las autoridades judiciales para delimitar los usos de los edificios del sistema de Justicia en Bilbao. En estas conversaciones, se puso sobre la mesa la necesidad de remodelación del Palacio de Justicia de Buenos Aires, optimizando las dotaciones y el funcionamiento de los juzgados de la jurisdicción penal.

La compra del edificio de Telefónica permitiría esta remodelación, al acoger temporalmente algunos servicios de Buenos Aires, para, posteriormente y de forma definitiva, ser la sede del Instituto Vasco de Medicina Legal.

Cultura y Política Lingüística

**EL DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
DESTINARÁ 825.000 EUROS A PROGRAMAS DE PROMOCIÓN DE LAS
ARTES ESCÉNICAS**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la convocatoria de programas y actividades de formación, promoción o exhibición destinados al fomento de las artes escénicas (teatro, danza y circo) que se realicen durante el ejercicio 2023. En total se repartirán 825.000 euros en estas subvenciones.

Las modalidades subvencionables son las siguientes:

- Se destinarán **160.000 euros a la formación permanente de profesionales de las artes escénicas**. Las actividades subvencionables son las siguientes:
 - Cursos o talleres de formación permanente.
 - Cursos o talleres de formación específica
 - Laboratorios y espacios similares dirigidos a la investigación y formación continua de profesionales
 - Espacios de entrenamiento continuado para profesionales
- El Departamento de Cultura y Política Lingüística financiará con otros **160.000 euros proyectos de promoción de las artes escénicas** realizadas en colaboración entre las compañías de las artes escénicas y los espacios escénicos de titularidad municipal de la Comunidad Autónoma de Euskadi durante el 2023. Los programas podrán incluir:
 - Actividades de sensibilización.
 - Actividades de mediación con los públicos.
 - Actividades formativas.
 - Programas de promoción de las artes escénicas desarrollados por una compañía residente.
- Los **programas de exhibición de las artes escénicas en la calle** se subvencionarán con **255.000 euros**. Las ayudas van dirigidas al desarrollo de programas de exhibición de las artes escénicas (teatro, danza y circo) representados por compañías vascas en espacios públicos al aire libre.
- Finalmente se destinarán **250.000 euros al desarrollo del Circuito de Danza de SAREA**.

El plazo de presentación de solicitudes será de un mes a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco.

En la convocatoria del año pasado el Departamento de Cultura y Política Lingüística apoyó 155 proyectos: 16 fueron proyectos de formación permanente de profesionales de las artes escénicas, 11 programas de promoción de las artes escénicas, 82 programas de exhibición de artes escénicas en la calle y otros 46 proyectos del circuito de danza SAREA.